

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN 2015-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak joan den ekainaren 29an aho batez onartu zuen Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU bere sozietate publikoaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2015eko ekitaldiari dagokiona.

HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du bi erakundeen kontuen gainean, nahiz **bi salbuespen** azaleratu dituen **Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren** kontuetan: Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketan erregistratu gabeko inbertsioaren minusbalioa, 321.973 eurorena, eta erregistratu gabeko finantzaketaren desbideratzea, gauzatzeko dauden inbertsioetarako Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotako 18,3 milioi euroren diru-laguntzena. **Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren** kontuei dagokienez, HKEEk **ez du ondoriorik ateratzerik izan deribatu finantzarioen kontzeptuan erregistraturiko pasiboaren zuzentasunaz**, horien balorazioetan aldeak daudelako, eta azken kostuak hartzen diren erabakien baitakoak edota, kasua bada, aldean artean lortzen diren akordioen baitakoak izango direla gogoan izan duelako.

HKEEk bi erakundeen oroitidazkietan jasotako zenbait alderdi azpimarratu ditu. Honela, bada, **azpimarratu du** Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak bere gain hartu dituela Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak zorpetutako obligazioak. Honek 14,1 milioi euroren maniobra funts negatiboa erakutsi du eta ondare garbia murriztu egin da, nagusiki deribatuek eragin dituzten finantza gastuen ondorioz. Gainera, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak deribatu finantzarioei dagokienez duen auzia dela eta, bere obligazioei aurre egiterik izango ez balu, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak beharrezko diren neurriak hartu beharko ditu Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, Saren finantza eta ondare egoera berroneratzeko. Azkenik, Txostenak dio Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak balioetsi duela ez dagoela GFari inongo kopururik itzuli behar izateko arriskurik egindako inbertsioak finantzatzeko jasotako diru-laguntzen kontzeptuan (40,7 milioi euro).

Honezaz gain, 2016 eta 2017an azpimarratu beharreko zenbait egoera gertatu direla uste du HKEEk:

- Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketako Zentroaren Lantegia eraikitzeko kontratuaren ebazpena epai bidez 2013an baliogabetu izana.
- Gipuzkoako 2017ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 8/2016 Foru Arauaren aurkako errekurtsua, zeinak agintzen duen Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala 2002-2016 osorik aplikatuko dela eta GFAk Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa finantzatzeko duela eskumeneko dituen goi sareko azpiegituren kostuaren % 33ren pareko zenbatekoarekin.
- Gipuzkoako Ingurumen Guneko obra publikoen emakida kontratuaren esleipena. Espediente honi dagokionez, txosten hau jaulki dugun datan ebazteko dauden zenbait errekurtsu aurkeztu dira.

Bai Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak bai Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak **zuzentasunez bete dute** euren jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen duen **legedia**, nahiz bietan unean uneko akatsak atzeman diren:

- **Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak** ez du **Aurrekontu Orokorra** egin (bere aurrekontuak ez ezik, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa sozietate publikoarenak ere besarkatu behar zituzkeena), gero Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren batzar nagusiaren aurrean izapidetzeko; berebat, ez ditu emandako zerbitzuei dagozkien **urteko tarifak** finkatu.
- **Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan** akatsak azaleratu dira langileen eta administrazioko kontratazioaren ataletan; bada, langileen atalean zuzendari nagusi ohiari ordaindutako kalte-ordaina lege zegokiokeena baino 16.702 euro handiagoa izan da; administrazioko kontratazioan, berriz, akatsak izan dira 5 kontratu esleitzeko prozedurari dagokionez, guztira 1,3 milioi euroan esleitutakoak, eta beste baten luzapenean, iraungi zenetik 2015eko abendura bitartean 58.291 euroren gastua eragin duena, txosten hau idatzi dugun datan zerbitzuaren lizitazioa bideratu ez dela.